

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 281. zenbakia. 2019ko iraila



**Ruth Armas,
idaztearen plazerra**



IRAZABAL
clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Familiaren Osasuna
Zure familiaren ahoaren osasunaz
arduratzen garelako
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta twitterren: @Clinicairazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomaturua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomaturua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:

10:00etatik **14:00**etara

Ugaro
asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 174344 • ugaro@ugaro.com

Agente eksklusiboak:

Allianz 
Seguros

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Estibalitz González,
Libe Solozabal
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Alex Alonso, Bizkaiko
Elizaren Histori Artxiboa,
Marisabel Garitagoitia,
Antonio Hernández 'Cuco',
Martín Longarte,
Patxi López,
Valentín Mugarza,
Miren Sangroniz
eta Pedro Sarasua.

ARGAZKIAK:

Amaia Arginzoniz,
Ruth Armas, Armeria Eskola,
Gaizka Goikoetxea,
Luis Iturrioz, Mallabia FT,
Juan Carlos Martín, Arantza
Moreno, Mirene Moreno,
Valentín Mugarza, Ermuko
Udala eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ibon Txurruka
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Koplak

Arrateko pikuak

Arrateko pikuak
hiru txorten ditxu (2)
Eibarko armeruak
ugarrak jan bitxu!
Ai, ai, ai ugarrak jan bitxu!
Arrateko pikuak
hiru txorten ditxu.

Oraingo neskatillak
daukan arriua (2)
burduntzali zahartxo bat
hiru zulokua!
Ai, ai, ai hiru zulokua!
Oraingo neskatillak
daukan arriua.



(Entzuteko: www.alboka.es)

Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Gaizka Goikoetxea (Alemania)	KIROLZALE.....17 Nesken kadete futbol txapelketa
ELKARRIZKETA5-7 Arantza Moreno eta Mirene Moreno	IRITZIA18 Uko egin
MALLABIAN ZER?8-10 San Adriango parrokia	ZORION-AGURRAK19 Saldu, erosi edo agurtu
ERMUAN ZER?12-13 Ruth Armas idazlea	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN14-15 Eskerrik asko txikurizaleok!	SAREAN GALDEZKA21 Egokiak iruditzen zaizkizu bizikletentzat egin diren bide berriak?
BOTEPRONTOAN.....16 Lucky Casado	URRIKO AGENDA.....22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gaizka Goikoetxea

Duela 4 urte Alemaniara joan zen Erasmusa egitera. Gure artean urte batzuk eman eta gero, Erromara joan zen iaz Gaizka Goikoetxea ermuarra master bat egitera. Bertan 8 hilabete eman zituen, Kolonian eta Vienan hilabete bana eta gaur egun Friburgon bizi da, Alemanian berriro ere.

- Zer dela-eta bizi izan zara horrenbeste lekutan?

Arazoi nagusia ikasketak izan dira: nire arloan Euskal Herri eta estatu mailan oraindik apur bat atzeratuta gaudelako.

- Erabaki erraza izan da etxetik irteatea?

Erasmusean joan nintze-nean orain baino errazagoa izan zen. Orduan, nahiz eta etxean gauza asko utzi, banekien bueltatzeko epea zegoela. Orain, aldiz, batek daki!

- Nola imajinatzen zenuen Alemania eta Erroma?

Leku berri batera noanean aurreiritzirik gabe joatea gustatzen zait. Alemaniarekin ez zen erraza. Uste dut denon moduan imajinatzen

nuela: ondo antolatua eta jende serio eta itxia. Erromarekin hiri polit eta historiko hori neukan buruan.

- Eta zer topatu duzu leku batean zein bestean?

Alemanian jende oso irekia aurkitu dezakezu, kulturartekotasun handia dago. Janariarekin, espero nuena: saltxitxak, patatak eta "txukruta". Zorionez, Friburgo Alemaniako hiri eguzkitsue-na da, beraz, ezin naiz kexatu. Erromarekin, aldiz, maitasun-gorrotoko harremana dut. Alde historikoak maitasuna eragiten dit, bertako kaleetatik ibiltzea museo batean egotea bezalakoa delako, harrigarria! Bestetik, hiriaren antolakuntza gorrotoko. Ezin nuen imajinatu Eu-



ropako hiriburu bat horren kaotikoa izan zitekeenik.

- Ondo moldatzen zara hizkuntzarekin?

Erasmusean joan baino lehen alemana ikasi nuen. Hizkuntza zaila da, baina eguneroko bizitzarako eta lagunekin hitz egiteko ez daukat arazorik. Italiaraz, ederto! Nire neska-laguna italiarra da eta italiaraz aritzen gara betidanik. Horrek bizitza erraztu zidan Erroman.

- Zer botatzen duzu faltan?

Batik bat kuadrilla, egunero lagunekin geratzea ez da ohikoa ez Italian ez Alemanian.

- Nolakoa da zure egun arunt bat?

Oraindik ez da ikasturtea hasi eta ez naiz hasi master amaierako lanarekin. Beraz, denbora dezente daukat kirola egiteko, sukaldatzeko, irakurtzeko...

- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?

Santixauetan, eta ahal izanez gero San Martinetarako bueltatuko naiz. Bestela Gabonetan ziur.

- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Bai, ez daukat zalantzarik. Gero eta argiago dut Euskal Herrian eta Ermuan bizitzetik bezala ez dela inon. Egon naizen leku guztietan oso ondo moldatu naiz, baina hala ere ez dut Ermua beste ezerगतिक aldatzen.

Libe Solozabal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen

elkarrizketa



Moreno ahizpak elitean dabilta. Arantza jabalina jaurtiketan, eta Mirene eskubaloian. Mirene Moreno, 21 urteko ermuarra da, txikitatik aritu izan da eskubaloian, eta Espainiako selekzioarekin jokatu du. Duela pare bat hilabete, Imanol Álvarez en gidaritzapean dagoen Super Amara Bera Bera taldeak fitxatu zuen. Donostian bizi da, eta Lanbide Heziketa ikasten dabil EHU-n.

Arantza Morenok, aldiz, 24 urte ditu, eta eskubaloian aritu izan den arren, gaur egun jabalinaran dabil buru-belarri. FC Barcelona taldeko jabalina jaurtilaria da, eta Espainiako txapelduna izan da abuztuan kirol horretan. Mirene eta Arantza euren ametsak egi bihurtzen ari dira.



- *Noiz hasi zineten kirolean? Betidanik eskubaloian edo atletismoan?*

Mirene: Ni 8 urtekin hasi nitzten eskubaloian, Ongarain. Hasieran gelako neska guztiak apuntatu ginen, baina urteak pasa ahala gutxi batzuk gelditu ginen. Eskubaloia Ermuan kristoren indarra dauka, eta urtero gehiago hartzen du. Atletismoan ere egon nitzten, baina 15 urtekin utzi nuen denbora kudeatzeko arazoak nituelako. Azkenean bi kirolatan aldi berean egoten saiatzen zara, baina ikasketekin arazoak nituen eta erabaki nuen eskubaloian bakarrik haritzea.

Arantza: Eskolako gelakide gehienak hasi ginen atletismoa praktikatzeko, momentu batera arte. Hortik aurrera ni bakarrik gelditu nintzen. Eskubaloian ere aritu izan naiz, baina orain jabalina jaurtiketan nabil soilik. Eskubaloiarekin Espainiako Selekzioan izan nintzen.

- *Noizbait aritu zarete batera kirolen batean? Non?*

M.: Bai, oroimen polita da. Beste ahizpa bat daukagu eta aukera izan genuen 3rak partidu batzuk batera jokatzeko. Arraroa izan zen eurekin pistan egotea, bai-



na gogoan ditut momentu horiek.

- *Zuen lehen pausoak elitean gogoratzen dituzue?*

M.: Beno, egia esan duela 2 hilabete egin nuen elitero salto. Nire lehenengo urtea da maila gorenean, orduan bai ederto gogoratzen dut. Nire bizitza ez da asko aldatu. Bai, egunero entrenatzen dut eta astebururo partidu bat daukat, baina agian Málaga edo Porriñon... Hala ere nire bizitza Ermuan dago, azken finean Donostia hemen ondoan dago.

- *Bakarka edo taldean saririk irabazi duzue?*

A.: Bai, kadete mailan

adibidez, taldea Espainiako txapelketa baterako sailkatu zen, baina ez genuen irabazi. Aitortu behar da azkeneko urte hauetan kristoren papera egin duela Errotabarrri taldeak Zilarrezko Mailan. Urtero hobekuntzak egiten dira, eta pixkanaka fruituak ikusten dira. Euskadiko selekzioarekin 3. geratu ginen Espainiako txapelketan jubencil mailan. Kristoren urtea izan zan hura! Azkenik, aurtun Espainiako txapelduna izan naiz jabalina jaurtiketan, baina horrez gain bi momentu ekarriko nituzke gogora: 3. postua Europako Kopan duela bi urte, eta 2015ean 8. postua lortu nuenean Mundialean.

- *Bi ahizpak kirolean maila gorenean egoteak zer suposatzen du zuen etxean?*

Gurasoen babesa kristorena da! Hor daude beti, laguntzeko prest: entzuteko, barre egiteko, negar egite-

ko... Baina eurentzako ere zaila da horrela bizitzea: 3 ahizpa gara eskubaloian eta jabalina jaurtiketan, eta eurak bi dira. Sakabanatu eta ahaleginak egin behar dituzte gu 3rak pozik egoteko.

- *Senideekin duzuen harremana primerakoa da, orduan...*

M.: Bai, harreman ona daukagu. Familia guztietan bezala gorabeherak daude, baina hor egon dira beti, gure alboan.



“Hiru ahizpa gara, eta batera jokatu izan ditugu eskubaloiko partiduak”



OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

Caperos

Pinboak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkeoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

- *Eta kuadrilla edo lagunak?*

M.: Sare oso garrantzitsua da nirezat. Bartzuk beti etorri dira Ermuan jokatzeko nituen partiduetara animatzera, eta babes hori oso positiboa da. Denbora librearen kudeaketa garrantzitsua da, eta plazerra da euren irteera eta noizbeinka kaña bat hartu.

- *Nolakoa da zuen egun arrunt bat?*

M.: Beno nire egunerokotasuna aldatu da. Esnatu eta klasera joaten naiz, Gizarte Hezkuntza ikasten ari naiz EHU. 13:00etan irteeraren ondoren 16:00etan en-

trenatzera noa. 19:00ak aldera bukatzen dugu eta taldekideekin zerbait hartu eta etxera noa. Bestalde, asteburu bakoitza ezberdina da. Adibidez, asteburu honetan ez dugu eduki partidurik, baina datorren hilabetean Erumaniara goaz Europako Txapelketa jokatuz... Denetarik dago, baina pozik nago. Momentu honetan oso pozik nago ikasketekin, kirolarekin, familiarekin eta lagunekin, noski.

- *Entrenatzailearen bat duzue gogoan? Zergatik?*

M.: Nire bizitzan zehar entrenatzaile desberdinak

Mirene: "Esango nuke izandako entrenatzaileei esker nagoela hemen"

eduki ditut, eta bakoitzak zerbait erakutsi dit. Ez bakarrik eskubaloian dauden arauak, baloreak, talde-lana, exigentzia, konpromisoa... Zaila da izen bat bakarrik aipatzea. Hiru izen etortzen zaizkit burura, eta beti eskertuko diet egindako lana. Esango nuke eurei esker nagoela orain hemen.

- *Zerbait botatzen duzue faltan?*

M.: Etxetik kanpo bizitzea ondo dago, gainera hemen gertu egonda. Baina egia esanda, batzuetan faltan botatzen dut etxera bueltatzea, sofan etzan eta nire familiarekin egotea. Edo astean zehar lagunak ikustea... Baina momentuz ondo nago.

- *Zerbait aldatuko zenukete zuen bizitzetatik?*

Ez. Iragana ezin da aldatu, oraina bizi behar da eta dena zeozergatik gertatzen da. Momentuz behintzat ez genuke ezer aldatuko.

Amara Arginzoniz



Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



ORBE TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa

- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com



Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

mari asun

LORADENDA



Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

uriarteasesores

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

Mallabiko eraikin esanguratsuenak:

San Adriango parrokia (III)

Bi parrokia izatearen berezitasuna du Mallabiak: Jasokundekoa, herrigunean, eta San Adrian Martiriarena, Gereako auzoan, mendeak atzerago Ziortzako Kolegiataren menpe egondakoa, nahiz eta bere gobernu politikorako Bizkaiko Batzar Nagusietan Mallabiko Elizatearen bitartez egon errepresentatua.

Eraikitze data: XV. mendean *Hermita* gisa jasotakoari, 1558ko urriaren 14an *Parrochia* izendapena eman zitzaion, bataiatzea, ezkontzea eta hileta-elizkizunak egitea ahalbidetuz. 1599ra arte Ziortzaren menpe egon zen.

Estiloa: Gotiko berantiarraren barruan kokatzen dute adituek.

Ezaugarri arkitektonikoak: Laukizuzen formako oina du eta teilatuak bi aldetara isurtzen ditu urak. Argitasun naturalaren mesedetan bi leiho ditu bidrierekin apaindutakoak. Elizpeak eraikinaren hiru alde hartzen ditu eta bata frontoi gisa erabili izan dute auzoko umeez, neska zein mutikok. Sarrera da adituen ustetan multzoaren ezaugarrikerik interesgarri eta ederrena: eskarzeno estiloko arku batek egiten digu harrera, harlandu handiekin osatutakoa. Berori inguratzen alfiz bat, 33 bolatxoz apaindua eta mentsula bik utsitakoa. Ur-bedeinkatu ontzia sarrerako arkuan integratuta dago ere. Sakristian gero iturritxo batek deitzen du arreta, hareharrizkoa, gainean ur-depositu gisa askatxo bat duena.

Koroa: XVI. mendekoa, jatorrizkoa, egurrean landutako baranda batek mugatzen du eta bertaratzeko eskailerak egurrezko 8 harmaila eta harrizko 9 ditu. Bertan ere harmoniuma, egurrezko atrila... meza kantatua zen sasoiatan ezinbestekoak.

Kanpaia: Teilatuaren ertz baten, berantzako propio egindako euskarri batetik zintzilik, eraikinak kanpotik duen elementu identifikagarriena da. 1734 urtean urtutakoa, 50 zm.ko diametroa du eta 72 kiloko pisua. Eliz barrutik, soka luze bati tira eginez jotzen da eta hiru kanpaikada dira mezetara deitzeko abisua ematen dutenak.

Aldarea: Erdian egurrezko gurutzea eta honen alboetan, hareharrizko peana banatan, Arrosarioko Amaren eta S. Adrian Martiriaren taila polikromatuak daude. Aldarean bertan ere bataioetarako ponteko harria dago, hareharrizkoa hau ere.

Ondoko eraikinak: Ezker-eskuma abade etxea eta sakristauren etxea zeuden, erabiltzeari utzi eta hondatuta bota behar izan ziren arte. Kanposantu zaharra eliza gaineko mendi-mota baten zegoen eta azken pertsona 1955ean urtean lurperatu zen; hurrengo urtekoa da gaur egun ezagutzen dugun eta pixkat urrunago dagoen kanposantuaren lehen erregistroa.

Jaia: Santuaren eguna, ekainaren 16an, astegunean denean meza egoten da soilik; hurrengo asteburuko zapatuan briska txapelketa eta domekan, mezaren ostean, dantzariak, bertsolariak, herri-kirolak, umeen jolasak... eta asto-probak, kale egin barik arratsaldean.

Dokumentazioa: Derion, Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboan gordetzen dira bertako agiri guztiak, besteak beste kontu-liburuak, Calahorrako gotzaitegi-



Gereako San Adrian Martiriaren parroikia kanpotik.

HARATEGIA - URDAITEGIA

MIGUEL

2012ko BILBOKO
TXORIZO TXAPELKETAN
BIZKAIKO
TXAPELDUNAK

PROBLEMA 3-943170563
ERMUX

ZERMik
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

ZERMik INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tz-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

tik eginiko bisiten aktak, auziak, ondasun zerrendak, jaiotza, heriotza eta ezkontza liburuak... Artxiboko webgunean kontsultagarri daude 1900era arteko 977 bataio-, 339 ezkontza- eta 1899ra arteko 505 heriotza-agiri. 1622 urtean ematen zaio hasiera erregistratzeari, Esteban Guerenagoena eta Catalina Elorduiren ezkontzarekin; heriotza liburua 1623an zendutako Pedro Ibarrek hasten du eta bataioena, ostera, 1625ean jaiotako Francisco Guarena Goenak.


Auziak: *Hermita* izatetik *Parrochia* izatera pasatzen denean, bertan abade bat biziko dela erabakitzen da. Berorri Ziortzako Kolexiatak 6 dukat ordainduko dizkiola edo hamarrekoen bere ekibalentzia, eta Bolibarko Cabildoak 13 dukat eta lehen fruitu edo primizien zati bat. Eliztarrak arduratuko dira elizaren konponketez eta behar diren kaliz eta eliz jantziez. Arazo eta desadostasun ugari izan zuten auzokideek Bolibar eta Zior-



Sakristiako hareharrizko iturritxo eta gaineko ur-depositua.

tzako eliz-gizonekin eta urteak eman zituzten pleiteatzen: bateko ordaindu beharreko hamarrekook zirela, besteko abadea bertan bizi izateko premia zela... 1558ko, 1560ko, 1568ko, 1610eko, 1720ko, 1721eko, 1745eko eta azkenik 1749ko data darimate desadostasunok sortutako dokumentazioa. Eskuarteran zutenaren adibide, 1610ko hau, non jasotzen den *“que la Parrochia tiene onze casas y quarenta Almas. Que no ay Beneficiado (abadea) instituido y que todos los Diezmos (hamarrekoak) se lleva la Abadia. No se ha puesto en algunos años servidor ni capellan. Si no se aplican todos los Diezmos no abra clerigo que admita dicho servicio. Han llevado clérigos que dicen misa y que de no residir ningun capellan estan expuestos a morir sin sacramento”*. Beste dokumentu batek argitzen digu elizaren sostengurako ordaindu beharreko hamarrekook: 45 anega gari, 60 marabedi (sasoi bateko txanpona), sagarrak, gaztainak, bildotsak, linua eta indabak.

Auzolana: Eliza kontserbatzeko ardura auzokideena zen eta obrak burutzeko Parrokia- ren jabegokoa zen S. Adrian Gastinadira jotzen zen, bertako haritz, gaztaina eta pagokak moztuz. Baina 1850ean, sakristau etxeko obrak egiteko dirurik ez eta bakoitzak lan egin behar izan zuen lau arratsaldetik behin harria eta harea pikatu eta garraiatzen. Honez gain, baserrietxe bakoitzak haritz bat eman behar izan zuen, bere kontura garraiatuz eliz ingururaino.



Sarrerako arkuak eta bere apaindurak artistikoki multzo ederra osatzen dute.

Bitxikeriak: Kontu ugari topatzen dira Derioko dokumentuetan eta bat aukeratzearren 1813 hau, non *“se acordó que no concurriese a ella la taberna ni el tamboril. Fijada la atención en las Romerías, o Fiestas de tamboril, cuio ejercicio es tan comun como perjudicial en este pais: observaron que siendo generalmente esta diversion la vase de la corrupcion de las Santas costumbres, donde la embriaguez y desemboltura compiten a la par, resultando de ella fatales e irreparables perjuicios, formando dichas Fiestas de tamboril un seminario de desordenes, en el que la Juventud se conaturaliza insensiblemente con los mas detestables hábitos de corrupcion, transformando su candor, pureza y sencillez en pentu-*

lancia, desemboltura y abandono de las mas sagradas Leyes de la Moral”. Ildo bereetik, Errosarioren Kofradiako kideei agindu baino mehatxu hau iritsi zitzaien: *“Ser expellido de la Cofradia el ó la que fuese notado del vicio de la borrachera, y frecuencia a danzas profanas y compuestas, raiz de incalculables males espirituales y temporales”*. Baina beti ere, 1764ko idatzi batek dinoen bezala *“que no se permite a los hombres entrar en la Ygl^a con cavello atado, gorros, ni redes; a las mujers descubierta la cabeza, ni sentarse en las gradas del Altar; y que no lleben niños pequeños que perturban ó inquietan durante los Divinos oficios y si no hacen caso se les multará con un real”*.

Estibalitz González

MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGYAK
943 030 299

FRONTENIS TXAPELKETAK BURUTUKO DIRA DATOZEN HILABETEETAN MALLABIAN

Irailaren 28an fronteniseko banakako maratokia jokatuko da eskolako frontoian. Parte hartu nahi dutenek 669 02 87 18 telefonora deitu beharko dute (bazkide ez direnek, 8€; bazkideek, 5€). 12 partaidek eman beharko dute izena gutxienez txapelketa aurrera ateratzeko, eta ez dira onartuko 24 tenislari baino gehiago. Hauen artean liga eta kanporaketetan garaipena lortzen duenak 60€ eta garaikurra jasoko du. Bigarren postuan geratzen dena, 40€ eta garaikurra jasoko du. Urriaren 26an, aldiz, nesken frontenis txapelketa egingo da, bikoteka. Bikote bakoitzak 16€ ordaindu beharko ditu parte hartu ahal izateko, eta aurreneko 4 postuetan geratzen direnek sari hauek jasoko dituzte hurrenez hurren: txapela eta 200€, kopa eta 150€, kopa eta zezina. AD Mallabia FTK eta Mallabiko Udalak antolatzen dituzte txapelketa hauek.

ANDRA MARI JAIK OSPATU ZIREN MALLABIAN ABUZTUAN

Urtero legez Andra Mari jaiak ospatu ziren Mallabian abuztuaren 14a eta 16a bitartean. Herritar asko oporretan egongo zirenez, hona hemen argazki batzuk jaietako giroa ikusteko. Argazkiak: Valentin Mugarza.



Zure publizitatea:

DROGETEN ITTURRI

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

943 179350 / 688 632876
drogeten@gmail.com

quetzal
[arropa, bitxiak, opaniak...]

Zubiaturre, 2 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

ZK

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

ASTIGORRA

Gosariak, pintxoak, afariak

Egunero zabalik
8:00etatik aurrera

San Pelaio zeharbidea 4
608 736 900

Euskararekin Match!



**UDAL
EUSKALTEGIAK**
euskara klaseak · clases de euskera

19/20

Matrikula
epea zabalik

MAILAK: A1, A2, B1, B2 eta C1.
Klaseak astean 3 egunetan (2 ordu egunean)

Eskaintza eta ordutegi zabalak
Azterketa ofizialak maiatzean eta urrian
16 urtetik gorakoentzat
Bekak

Langabetuek eta lehen mailako ikasleek matrikularen prezio erdia

BULEGO ORDUTEGIA:
9:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina
Goienkale, z/g 2. Solairua
Tf.: 943 17 09 25

euskaltegia@udalermua.net
<http://www.ermua.es/pags/euskaltegia>

Ruth Armas, idazlea:

“Idazterakoan nire barnea zabaltzen dut eta jendeak barruan begiratzten du”

Duela 12 urte bizi da Ermuan, baina bizitza osoa darama idazten. Eta idatzitakoa gordetzen. Azkenean, gordetako kontaketa horietako batzuekin liburua osatu du Ruth Armas kanariarrak, *¿Te cuento una historia?* Bere orrietan batuta elfoak, Politxinelak, nazi eta juduak, Indiako neskatoak... 26 istorio, pertsonaia anitzak eta eskuz egindako ilustrazioak.

- Txikitatik gordeta dituzun idatzi guzti horietatik, nola aukeratu dituzu liburuan irakurri daitezkenak?

Nire gustukoena aukeratu ditut, barruan zerbait ukitu dezaketena.

- Zeintzuk gai jorratzen dituzun kontakizun horietan?

Denetik, istorio batek ez dauka zerikusirik aurrekoarekin. Asmatutakoak dira, baina hiru benetan gertatu zaizkidan gauzetan oinarrituta daude: *El fin del mundo*, *Tu viaje de mis sueños*



eta *Un paseo por mis recuerdos*.

- Zerk inspiratzen zaitu?

Nire burua ez da geratzen, etengabe dago lanean, eta edozerk inspiratzen nau. Idazten hasi eta gauzak sortzen hasten dira, baina egia da batzuetan blokeoak izaten ditudala, idazten dugun guztioi gertatzen zaigu. Gainera idazmen tailerrera noa Lobianora eta horrek ere asko laguntzen dit.

- Kontaketa laburrak idazten dituzun beti?

Kontaktetan zentratzen naiz dinamikoa delako, eta gai batetik bestera salto egin dezakezulako. Beti aktibo egoteko aukera ematen didate, edozein momentutan paper bat hartu eta idazten hasi naiteke.

- Zerk bultzatu zaitu liburua kaleratzera?

Gogoia nuen aspaldidanik, nire ametsa zen, baina gauzak gertatzen dira gertatu behar direnean. Jendeak irakurtzea nahi dut, eta barneraino heltzea.



- Zuk editatu duzu?

Bai, eta egia esan argitaletxeen mundua nahiko konplikatu da, desengainatuta nago. Azkenean Amazonen bitartez egin dut, eta eurek ipini diote prezioa liburuari, inprimatzeak zenbat kostatzen zaien kontutan izanda. Garestitua da, ilustrazioak koloretan direlako, baina 200 ale baino gehiago saldu ditut apiriletik, nik uste baino dezente gehiago. Amazon eta herriko liburu-dendetan dago salgai.

- Zer esan dizu liburua irakurri duen jendeak?

Gustatu zaiela, emozio ezberdinak eragin dietela: pena, poztasuna... Eta hori

da nik nahi dudana. Idazterakoan nire barnea zabaltzen dut, eta jendeak barruan begiratzten du. Ikusten dutena gustatzea oso pozgarria da. Bakar batek esan dit ez dituela istorio batzuk ulertu.

- Proiektu gehiago dituzun esku artean?

Bai, duela urte t'erdi eleberri bat idazten hasi nintzen, baina dokumentazio lan handia eskatzen dit. Dibortziatutako emakume baten gorabeherak jasotzen ditu, Kanariar Uharteetan, 1930.eko hamarkadan. Datorren urtean kaleratu nahiko nuke.

Dorleta Vidal

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

Plan B

Coffee Lounge Gin & Beer

Bitsi-denda Tailor peopioa Edojurdenda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

30. SAN MARTIN AZOKAN:

* Errifak eskatzeko azken eguna, urriaren 25a

100€
(tabernariak)**50€**
(dendariak)

=



+



688632874

Errifen takoa eskuratu nahi duten tabernariak 100€ ordaindu (dendariak, 50€) eta laguntzaile bandera jasoko dute. Informazioa: 943179350

Urriaren 1ean zabalduko da San Martin azokan izena emateko epea

30. San Martin azoka burutuko da aurten azaroaren 9an, eta Euskal Birusa Euskara Elkarteak berritasunak prestatzen dihardu urteurrena ospatzeko. Bitartean, azokan parte hartu nahi duten nekazariak, ekoizleak eta artisauek izena eman beharko dute, urriaren 1a eta 10a bitartean. Nekazariak eta ekoizleak Ermuko Udaleko Euskara Sailean eman beharko dute izena, 8:00ak eta 15:00ak bitartean, eta parte hartzeko oinarriak bertan

jaso ditzakete edo Udalaren webgunean (www.ermua.es). Azokan parte hartu nahi duten artisauek, berriz, Euskal Birusaren webgunera jo beharko dute (www.euskalbirusa.es). Oinarriak irakurri eta gero, izen-emate orria bete eta emailez bidali beharko dute euskalbirusa@gmail.com helbidera. Postuen esleipen publikoa urriaren 31n egingo da Lobianon, 19:00etan.

**San Martin Kulturala 2019****Bertso jaialdia**

Ermua Antzokian, azaroaren 15ean, 22.15ean



Uxue Alberdi
Nerea Ibarzabal
Andoni Egaña
Ametz Arzallus
Julio Soto
Maialen Lujanbio
Gai-jartzailea:
Maite Berriozabal



Sarrera: 10€
Lobiano Kulturagunean, Kutxabankeko kutxazain,
webgunean eta 944 310 310 telefonoan salgai.



KALTXANGO AEK EUSKALTEGIAK ATE IREKIAK IZANGO DITU IRAILAREN 26AN



Kaltxango Euskaltegiko euskara eskolak urriaren batean hasiko dira. Maila guztiak jarriko dituzte abian A1etik C2ra. Hasi aurretik, baina, ate irekiak izango dituzte irailaren 26an. Luntxaz gain, 19:00etan umorezko bakarrizketa eskainiko du Barry Manleyk, eta nahi duten herritar guztiak euskaltegiaren egoitza berria ikusteko aukera izango dute.

ABIAN DA BELDUR BARIK LEHIAKETAREN X. EDIZIOA

Emakundek sortutako Beldur Barik ikus-entzunezkoen lehiaketa 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Lanak aurkezteko epea azaroaren 5ean bukatuko da. Parte hartu nahi dutenek Ermuko Udaleko web orrian ikus ditzakete oinarriak.

Eskerrik asko Txikurizaleok!

Josean Larrañaga, Iñaki Gabilondo, Eli Areitioaurtena, Juanjo Gorritxategi, Idoia Zamakola, Txebis Gorritxategi, Lidia Jiménez, Olatz Santos, Natalia Arrizabalaga, Rober González, Jorge Rodríguez, David Elejalde, Jokin Aranburu, Danel Gorritxategi, Oier Viteri, Jokin Arano, Beñat Izagirre, Alex Ugena, Jabi Vidal, Jose Santos, Juanjo Solozabal, Josu Cruz, Amaia Arginzoniz, Ainhoa Ganuza, Lorena Arias, Gaizka Gallardo, Alazne López, Nahia Ruiz, Irati Yarza, Libe Solozabal, Ane Izagirre, Maitane Mugerza, Amaia Sangroniz, Paule Gorritxategi, Nerea Iriondo, Paul Yarza, Maite Askasibar, Alex Solozabal, Manuel Moreno, Pamela Janice, Endika Goitandia, Jon Larrañaga, Alex Pagaldai, Asier Madarieta, Mikel Madarieta, Gaizka Goikoetxea, Ander Díez, Ivan López, Julen Nogales, Iñigo Ugena, Juli Saceda, Julen Gastón, Julen Rubio, Xabi Goikoetxea, Amaia Orbe, Nerea Rubio, Maitane Egido, Ander Prol, Lidia de Luis, Olatz Arriaga, Idoia Goikoetxea, Rachid Kamach, Amagoia Jauregi, Alexandra Fernández, Luisa Castro, Leire Cascán, Ainhoa Cruz, Julen Erauskin, Xabier Moreno, Amets Recio, Aroia Lejardi, Eider Gisasola, Josu Gómez, Silvia Ganuza, Asier Cascán, Maialen Alvarez, Aitor Arrizabalaga, Unai Rodríguez, Esther Larreategi, Eneko Goikoetxea, Aitor Jauregi, Jokin Uriarte, Beñat Mallabia, Gorka Elgea, Jokin Díez, Alex Alvarez, Naroa Beitia, Ainhoa Piñeiro, Mirene Moreno, Juan Fernández, Félix Cuadrado, Esteban Goikoetxea, Mari Jose Goigogana, Elias Uriarte, Idoia Narbaiza, Bea Narbaiza, Nerea Berriozabal, Alberto Belar, Estibalitz González, Igone Amesti, Mikel Alberdi, Amaia Arriaga, Gaizka Areitioaurtena, Piedi Eizagirre, Agirre Kiroiak, Antxitxiketan eta Beti Berdin taldeak.

Edorta Unamuno irradian dibulgazio lanetan

Hegaztietan aditua eta Urdaibai Bird Centerreko langilea den biologo honek urteak daramatza bi irradian kolaboratzaile lanak egiten eta, denboraldi honetan, Euskadi Irratian entzuteko aukera asteazkenetara pasatzen da, eguerdiko 12:30ak aldera, *Faktoria* saioan. Dena den, ohiko ordutegietan jarraituko da emititzen Bizkaia Irratian *Lau haizetara* saioan eskaintzen duen tartea, astelehenero goizeko 10:30ean eta beronen errepikapena egun horretako gauean, 22:30ak inguruan. Hegaztien gaineko eta ingurumen naturaleko berriak, kuriositateak eta jakin beharrekoak modu ulergarri eta xumean ezagutaraztea dute saioek helburu, eta Bizkaia Irratiaren kasuan Gernikako Astelehenean ortuari eta frutek egin izan duten prezioen berri ere ematen du ermuarrak, baserritarrei azokan galdetu ostean.




CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu



943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Desiak
PSIKOLOGIA
ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA

Nahia Rojo Bustinduy
Psikologoa eta Sexologoa

Hitzorduak: 688 85 18 95



enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel: 94 659 01 41 - 618 89 29 60
E-maila: info@enolimp.es
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es



DG Horacio Decoración
VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIFERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

Ermua eta Mallabiko langabei zuzendutako programa jarriko du martxan Armeria Eskolak



Ermuan eta Mallabian langabezi egoeran dauden herritarrei zuzenduriko Laneratze Programa berria antolatu du Armeria Eskolako Elkartek, Ermuko Udalaren laguntzaz. Programa hau lau fase ezberdinetan banatuko da: Lehen fasean, laguntza pertsonalizatua emango zaio parte-hartzaile bakoitzari, gidatuz eta orientazioa emanez profil profesional bat definitzeko. Une horretan, formazio-ibilbide bat definituko da parte-hartzaile bakoitzarentzat bere profilaren arabera. Jarraian, bigarren fasean, zeharkako formazioa hasiko da eta ekintzaitetasuna landuko da. Behin zeharkako formakuntza amaituta, *FMECO110 Soldadura con electrodo revestido* y *TIG* ziurtagiria irakatsiko da. Ikasleek 640 orduko klaseak jasoko dituzte Armeria Eskolan abenduaren 19tik ekainaren 16ra bitartean, eta gainditzen dutenek enpresetan lanez

kanpoko praktikak egingo dituzte. Bukaeran, eta parte-hartzaileek formazioa amaitu eta gero, lana bilatzen lagundu zaie, horretarako tresnak emanez, Curriculum Vitae-a diseinatzuz edo haien profiletan interesa izan dezaketen enpresak identifikatuz. Programa honetan parte hartu nahi dutenek langabezian eta Lanbiden lan-eskatzaileria gisa egon beharrez gain, Ermuan edo Mallabian egon behar dute erroldatuta. Urriaren 15a baino lehen eman beharko da izena Armeria Eskolan, 943 20 32 44 telefonoan edo www.armeriaeskola.eus webgunean.

BNI Armagin enpresa-taldeak 5 milioi euro fakturatu ditu urtean

Eibar, Ermua eta inguruko herrietako enpresek osatzen duten BNI Armagin enpresa-taldeak 3 urte bete ditu. BNI (Business Network International) Estatu Batuetan sortutako marketing eta erreferentziarako programa da, eta enplegua eta aberastasuna sortzeko helburuarekin egiten du lan. Ideiak, kontaktuak, harreman sareak eta negozioarako erreferentziak partekatzeko aukera dute parte hartzaileek, eta elkarlan horri esker, taldeko kide guztiek dute etekinak handitzeko aukera. “Bilerak gure erara moldatu ditugu, eta enpresariok hartu dugu oihartzuna, hau da, gure artean bezeroak bilatzen laguntzen diogu bata besteari, eta elkarri ateak zabaltzen dizkiogu, besteak beste”, adierazi du BNko kidea den Olatz Etxeberriak. “Hiru urte hauetan lortu ditugun etekinek argi erakusten dute egindako lanaren emaitza —diote arduradunek—. Lantaldea oso harro dago emaitzokin eta aurrera jarraitzeko indarra eta ilusioa daukagu”. Taldea kide berriei zabalik dago, eta informazio gehiago jaso nahi dutenek armaginbni@gmail.com helbidera idatzi dezakete.

BOJ TALDEAK IRABAZI DU XIV. FOLKEZBLAI LEHIAKETA



Ferroleko Boj taldeak irabazi du Ermuko Folkezblai lehiaketa, folk taldeei zuzendutako musika lehiaketa hain zuzen ere. Horri esker, 3.000€ko saria jaso dute. Flowk talde kataluniarak, aldiz, bigarren postua eskuratu du, eta 1.500€ jaso ditu. Irailaren 14 eta 15ean burutu zen lehiaketa, eta epaimahaiaren esanetan “finalerako sailkatu diren taldeek maila oso ona eta proposamen aukera zabala erakutsi dute”. Saria jaso duten taldeez gain, finalera heldu ziren ere Lurgain gipuzkoarrak, X-Fanekas valentziarrak eta Lenda Ártabra eta Comando Curuxás galiziarak. Lehiaketatik kanpo jozuten Xabier Díaz & Adufeiras de Salitre taldeak, La Kabhalak (iazko irabazlea), Hermanos Cuberok, Foularedak eta Alboka Musika Eskolako trikitilariek. Ermuko Udalak antolatzen du Folkez Blai, folk musikako herriko taldeekin elkarlanean.



CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

ileapaindegia
Silvia
peluquería

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474

688819336

Dejáte
QUERER
BERRIA
BERRIA

LUCKY CASADO

- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Teodoro Zuazuan ikasi nuen 3. mailara arte. Gero La Sallera joan nintzen 12 urte bete arte, eta ostean Durangoko Maristetara. Gogoratzen dut Teodoro Zuazuan lokatzez betetako zelai bat zegoela, beti jolasten genuen bertan eta zikin-zikin heltzen nintzen etxera. Ama beti haserre! La Sallen porlanezkoa zen dena, beraz, arazorik ez!

- Eta gaztaroa?

Nahiko berandu hasi nintzen irteten. Ez nintzen gelakideekin oso ondo moldatzen, orduan ez nekien, baina heldutasun maila ezberdina geneukan. Unibertsitatean ni bezalako jendea topatu nuen, eta han egin nituen benetako lagunak. Orduan hasi nintzen irteten.

- Zer izan nahi zenuen txikitán?

Hegazkin-pilotua. Gero ikusi nuen oso zaila zela, eta ezin zela ikusmen arazorik izan.

- Eta nolatan telekomunikazioak aukeratu?

Ordenagailu artean hazi naiz, txikitatik Visual Basic lengoia ikasi dut... Gustuko mundua nuen, eta ezagun baten bitartez izan nuen karrera honen berri.

- Non egiten duzu lan?

Ormazabal enpresan, Igo-rrin. Negozio elektrikoaren arloan egiten dugu lan, eta ni elektronikaz arduratzen naiz.



Ermuan jaio zen duela 35 urte, eta gaur egun bertan bizi den arren, 12 urtetik 21 era Durango bizi izan da. Aita durangarra du, ama Ermuan jaiotakoa, eta biak dira programatzaile informatikoak. Telekomunikazio-ingeniaria da Lucky, eta elektronika eta komunikaziotan doktoretza du.

- Zer da zure lanaz gehien eta gutxien gustatzen zai-zuna?

Gehien, erantzukizun handiko postua dudala, eta jendea kudeatzen dudala. Gutxien, batzutan antolaketa falta dagoela.

- Hizkuntzekin ondo moldatzen zara?

Jendeak baietz esaten dit. Ez daukat ikasteko erraztasunik, baina tematzen naiz, eta azkenean ikasten dut. Ingelesa ondo menperatzen dut, eta euskara ere. EGA atera nuen duela urte ba-

tzuk, baina ez daukat inguruan inor praktikatzeko, eta Berbalagunen eman nuen izena 2007an edo 2008an.

- Zer egiten duzu aisialdian?

Duela 3 urte mendira joaten hasi nintzen, eta 100 mendiak egiten ari naiz. 43 egin ditut jada.

- Bidaiatzea gustatzen zai-zu?

Bai, Europako herrialde askotan egon naiz, baina Noruega eta AEBtako mendebaldeko itsaertza daukat pendiente.

- Irakurtzea gustuko duzu?

Bai, gauza berriak ikastea gustatzen zait. Carl Gustav Jung, Platon eta *Hiru mosketariak* frantsesez ditut esku artean.

- Egunero kale egin barik egiten duzuna?

Twitterren jende asko daukat, beste tekniko batzuk esaterako, eta nobedadeak irakurtzen ditut egunero. Albistegiek gogaitu egiten naute.

- Zinea??

IMDBk duen pelikula onenen zerrenda ikusten ari naiz.

- Musika?

Gatibu eta Ken Zazpi izugarri gustatzen zaizkit. Gaztelaniaz, La Fuga eta Marea. Txikitán asko gustatzen zitzaidan Mägo de Oz.

- Zure eguneko momentua?

Kiroldegira noanean.

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Eztabaidek.

- Zerk eragiten dizu barrera?

Edozerk. Lanean esaten didate ezin dela horrenbeste disfrutatu lan egiten!

- Zure bizitzako egunik zoriontsuena?

Tesia bukatu eta afaria egin nuenean familia, zuzendari eta lagunekin.

- Zer eskatzen diozu lagun bati?

Pertsona ona, zintzoa eta arduratsua izatea.

- Zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Gudak bukatu direla.

Dorleta Vidal

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

Athleticek irabazi du Ermuko S. Lagunar Kopa

Irailaren 7an burutu zen II. Nesken Kadete Mailako Futbol Txapelketa Ermuan, eta Euskal Herriko talderik puntakoenek parte hartu zuten. Horien artean Athleticek lortu zuen garaipena. Antolatzaileek partehartzaile guztiek erakutsitako maila ona nabarmentzen dute.

2019ko txapelketa honi hasiera emateko, ligaxka jokatu zuten talde guztiek, eta Aurrera Vitoria, Errenterriako Touring, Bizkerre eta Tolosa (jazko txapeldun ordea) txapelketatik kanpo geratu ziren. Finalerdietan, Eibarrek Lakuari irabazi zion azken minutuan gola sartuta (1-0), eta Athleticek 2-0 irabazi zion Lakuari.

14 eta 16 urte bitarteko neskei zuzendutako txapelketa honek goi mailako finala izan zuen. "Eibar eta Athleticek beste taldeek baino maila altuagoa erakutsi zuten txapelketan, bai arlo fisikoan bai jokalarien kalitate teknikoari dagokionez —adierazi zuten antolatzaileek—. Eta ez zen harritzekoa izan bi talde hauek finalera heltzea".

Hainbatetan heldu ziren bi taldeak kontrakoaren area-ra, baina ezin izan zuten gola sartu. Horregatik, 0-0 bukatu eta gero, penaltietan erabaki zen irabazlea. Ate-

zainek lan bikaina egin zuten, eta azkenean Athleticek irabazi zuen (4-3). Eibarrek, beraz, ezin izan zuen 2018an lortutako garaipena errepikatu.

Nesken futbola modan

Txapelketa hau ermuar baten ekimen pertsonala da, eta Ermua CDren laguntzarekin gauzatzen da. Antolatzaileen arabera, "duela gutxi burututako nesken Mundialak komunikabideetan izan duen oihartzuna kontutan izanda, eta estatuko Ligako hainbat taldek nesken futbola sustatzeko egiten ari diren ahaleginak ikusita, esan daiteke nesken futbola modan dagoela. Gero eta zale eta ikusle gehiago erakartzen ditu, eta gero eta neska gehiago daude praktikatzen prest". Txapelketa honen helburua ere bada nesken futbolari bultzada ematea.

Dorleta Vidal

Argazkiak: Luis Iturrioz



Argazkian, Natalia Zulueta (Soldaduras Lagunarreko ordezkaria), eta txapelketako jokalaririk onena, Bizkerreko atezaina (txapelarekin).



Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

Uko egin

Ameriako portuko Balearen ondoan eserita, adia-adi ilunabarraren zain, hitz bat etorri zitzaidan burura, *uko egin* hitza. RAEn araber, uko egitea aditz bat da, eta adierazten du egiteko asmoa edo nahia genuena alde batera lagatzea. Baina zerk eragiten du egin behar genuena bertan batera lagatzea? Hiru alderdik batez ere: lortzeko ahalmenari buruzko gure pertzepzioa; berau lortzeko ditugun edo eskaintzen dizkiguten baliabideak; eta azkenik inguruak egiten digun balorazioa.

Amagabeko itsas pasealekuan aurrera egiten dudan bitartean, Cable Inglésan dagoen nerabe talde bat rapeatzen entzuten dut.

Gure esku dagoen faktore bakarra eta helburu bati uko egin edo ez baldintzatzen duena da berau lortzeko gai ikusten garen edo ez. Agian esfortzuarekin, behin eta berriz saiatuta, denborarekin... Baina hori guztia jokoan ipinita ere gure helburua ez dugunean lortzen, etsi egiten dugu asmo handiko proiektua delakoan.

Neska batzuk nire ondotik igarotzen dira Perezaren *Princesas* abestia mobilean oso altu entzuten.

Baina beste bi aldagai falta dira, gure jokabidea baldintzatu, eta erabakigarriak direnak aurrera egin edo amore emateko. Alde batetik guretzat erreferenteak di-



Juan Carlos Martín

ren pertsonak pentsatu eta esaten dutena. Bestalde, besteek eskaintzen dituzten baliabideak edo erraztasunak gure nahia lortzeko moduko helburua bihurtzeko.

El Zapillo nagusien egoitzara heldu naiz, eta hondartzako txosnaren pare-parean Simon & Garfunkel entzun daiteke.

Uko egitea, beraz, gure burua gai ez ikustea da, bidea ez dela erraza izango ikustea edota guretzat erreferentzia diren taldeek gure erabakia ez luketela onartuko ulertzea.

Buelta eman dut. Badirudi itsas pasealekua ez dela sekula bukatuko.

“ *...gure helburua ez dugunean lortzen, etsi egiten dugu, asmo handiko proiektua delakoan* ”

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



IZASKUN TXURRUKA



Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Proba-Leku

Neapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A

Tel. 943 17 05 42

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454

sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

SALGAI

42 metro karratuko mobil-homea salgai. Bañareseko kanpinean dago (Errioxa, Santo Domingo de la Calzadatik 2,5kmra). Teilatu bikoitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna, dutxa eta bidearekin. Aire egokitua. 30 metro karratuko portxea toldoarekin. Prezio negoziagarria. © 943031477 (gauean, 20:00etatik 22:00etara).



Irailaren 29an
Zorionak Asier!! Zure 5 urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoan partez. Ondo pasa eguna!!!



Irailaren 5an
Zorionak Unax!!! Urte bat!!! Musu handi bat familia guztiaren partez.



Irailaren 17an
Zorionak Gorane zure 12. urtebetetzean. Ondo pasa aita, ama eta amamen partez.



Irailaren 15ean
Zorionak Peru! Primeran pasa dezazula zure urtebetetzean. Patxo handi bat etxeko guztion partez!

LAN BILA

Nagusiak zaintzen (gauez) eta garbiketako orduka. © 662 012 834.

Nagusiak zaintzen (gauez) eta garbiketako orduka. Jaurlaritzako titulua eta eskarmen-tua. © 603 514 085.



Irailaren 25ean
6 urte handi egin dituzu, Ainere!. Zorionak guapa!! Etxeko guztien partez patxo handi bat.



Abuztuaren 31n
Zorionak Lier zure 4. urtebetetzean aitita eta amamaren partez. Musu handi bat maitasunez.



Urriaren 3an.
Zorionak Aitzol! Oso ondo pasa zure urtebetetzean eta musu handiak familiaren partez.



Urriaren 1ean
Zorionak! Muxu asko etxekoan partez. Prestatu belarriak!!!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: drogeten@gmail.com helbidera.

Azken eguna: **Urriaren 16a.**



Lur (uztailak 12) 8 urte
Izar (abuztuak 2) 2 urte
Zorionak marimatrakak! Maitte zaittuztegu!

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia
- Pazo Señorans
- Txakoli Akarregi
- Añada Real
- Vicente Gandía
- Milana
- Yllera taldea
- Oriol Rossell
- La Loca Juana
- Gomez Cruzado
- Astobiza txakolina
- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

MALLABIA 1968

Argazki honetan Elgetzukoak agertzen dira. Bertan daude: Migel Mugarza Gallastegi, Alazne Mugarza Martinez, Matilde Martinez Salvador, Alberto Madariaga Mugarza, Raimunda Garitaonandia Ayarzagüena, Carmen Mugarza Garitaonandia, Jose Mugarza Gallastegi, Valentin Mugarza Martinez, Felix Mugarza Garitaonandia, Mila Mugarza Garitaonandia, Migel Mugarza Martinez, Arantxa Madariaga Mugarza, Jose Luis Mugarza Martinez, Iñaki Mugarza Martinez, Begoña Madariaga Mugarza, Juan Angel Mugarza Martinez, Pello Mugarza Martinez, Begoña Mugarza Garitaonandia eta Juan Luis Mugarza Garitaonandia.



ERMUA 1967



Zentro Kultureko, gerora Eskolabarri izena hartuko zuen ikastetxeko ikasle mutilak, Zinemarako sarreran erretratatuta. Ezkerretik eskumara eta goiko ilarran José Luis Cano, Juanjo Ruiz, Jesús Martínez eta Iñaki Agirregomezkorta. Erdikoan Félix Careaga, Carlos Teruel, Raúl Pérez, Angel Onandia eta José M^a Marcos. Behekoan Miguel Angel Albillos, Félix Moreno, Ignacio Arin, Enrique Pérez, Juan Pellejero eta Juanjo Eizagirre.

*Uztaileko alean mutikoetako bat Roberto Araiztegi zela jarri genuen, baina Pedro Mari Narbaiza da.




Eskuz egindako
terapietan adituak

ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.fisioterapiamanualartros.com



Oporretatik bueltan Ermuko hainbat kaletan seinale berriak ipini dituzte: txirringularen bideak bereizten dituztenak. Egokiak iruditzen zaizkizu bizikletentzat egin diren bide berriak?



■ Bai: 20 boto.
■ Ez: 116 boto.

Irailaren 13tik 19ra egon da inkesta honetan parte hartzeko aukera, eta guztira 136 boto jaso dira Euskal Biruseko Facebooken.



URRETA

burdindenda

<ul style="list-style-type: none"> ✕ Etxea ✕ Tresneria ✕ Brikolajea ✕ Erailak 	<ul style="list-style-type: none"> ✕ Giltzak ✕ Sarrailagintza ✕ Kit altzariak
---	--

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56
Diputazio, 5
ERMUA

ZINEA

Hilaren 5etik 7ra
Hilaren 12tik 14ra
Hilaren 19tik 21era
Hilaren 26tik 28ra
 Zehaztu gabeko filmak.
 Ermua Antzokian.
 Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 3
Hilak 10
Hilak 17
Hilak 24
Hilak 31
 Zehaztu gabeko filmak.
 Ermua Antzokian.
 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 6
Hilak 13
Hilak 20
Hilak 27
 Ermua Antzokian.
 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 4
 Musikala: "The Opera Locos". Eibarko Koro gaztea eta Forjarien bandaren eskutik.
 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 15€

Hilak 11
 Kontzertua: The Travelling Brothers.
 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€

Hilak 20
 Blues kontzertua: Blues Whale. 20:00etan.
 Lobiano Kultur Gunean.
 Sarrera: 10€

ANTZERKIA

Hilak 18
 "Los teloneros del chocolate". La Red Teatro eta Eibarko Koro gaztearen eskutik.
 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 8€

Hilak 25
 Umore ikuskizuna: "¿Solo lo veo yo?". El Monaguilloren eskutik.
 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 10€

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilaren 4, 11, 18 eta 25ean
 Haurrentzako jolasak: Barixakuetan.
 17:30ean.
 Orbe kardinalaren plazan.

Hilak 5
 Haurrentzako ipuin-kontaketa ingelesez. 17:30ean.
 Lobiano Kultur Gunean.

Hilak 19
 Haurrentzako ipuin-kontaketa. 17:30ean.
 Lobiano Kultur Gunean.

Hilak 26
 Haurrentzako Ikuskizuna: "Inondik inora", Benetan be taldearen eskutik.
 17:30etan.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 4€

ERAKUSKETAK

Hilaren 1etik 14ra
 Margoak eta eskulturak: Esther Fdez. De Maruri Arguiarro.
 18:00etatik 20:00etara.

Hilaren 15etik 27ra
 Mikologiari buruzko argazkiak:
 18:00etatik 20:00etara.

BESTELAKOAK

Hilaren 6ra arte
 Gaztela-Leoneko Kultur Zentroaren astea: hainbat ekitaldi.
 Gaztela-Leoneko zentroan eta Orbe kardinalaren plazan.

Hilaren 21etik 27ra
 Andaluziako Kultur Zentroaren astea: hainbat ekitaldi.
 Andaluziako zentroan eta San Pelaio plazan.

Hilaren 24tik 27ra
 Mikologiari buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi.
 Lobiano Kultur Gunean eta Orbe kardinalaren plazan.

Patxi López



**TXINDURRI
 TALDEA**
**Tokian
 tokiko**

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
 ARRAIN FRESKOAK
 ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
 943 17 16 96
ERMUA

Infreñu
Taberna



Kardenal Orbe plaza
 943 174584
www.infretaberna.com



**MUSIKA
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

irale
 Hortz Klinika
 Clínica Dental
 C/ Zeharkalea, 8
 48260 Ermua, Bizkaia
 Tel: 943 17 71 94

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

- Aho eta implante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

NATURA 
 Cristina García Pérez

Belar-denda eta dietetika

- Elikagai biologikoak
- Terapia naturalak
- Naturopatarekin kontsultak
- Masajeak
- Dietistarekin kontsultak
- Kosmetika biologikoa

Zeharkale 12 behe esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

OSASUN GIDA

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber

Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89

Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

Zuri egokitzen
 den odontologia
 La odontología
 que se adapta a tí

SAN PELAYO
 HORTZ KLINIKA Y CLINICA DENTAL

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Col. nº 1284

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04
 info@clincasanpelayo.com
 San Pelayo Zeharkalea 5
 48260 Ermua (Bizkaia)

FUB Mediku psikiatra - Psikosomatika
 Psikoterapia psikoanalitikoak

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Ego gain ,18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
 Bailen Kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
 furizar1@yahoo.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo
 688 63 28 76 telefonoetara
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera



**Zu hemen zaude,
AEK ere bai**

100 euskaltegi baino
gehiago Euskal Herri osoan

EUSKARA-IKASTAROAK

Ermuko Kaltxango AEK

Euskalduntzea

4. maila (C2) aurrez aurre

Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak

Autoikaskuntza

Mintza-taldeak

Berbalagun

Txandaka aritzeko aukera

%100era arteko diru-laguntzak

AZKEN EGUNAK

Zearkale 16, behea. Ermua

943 17 19 40 · 607 623 961 · kaltxango@aek.eus